

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URKABUSTAIZKO UDALA

#### 2025-2026 ikasturtean euskara ikasten laguntzeko beken deialdia

BDNS(Identif.): 896217.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/896217>).

Xedea: euskara ikasteko jarduerak finantzatzeko dirulaguntzak ematea.

Onuradunak: Urkabustaizko Udalerrian erroldatuta dauden 16 urtetik gorako pertsona interesatu guztiak.

Pertsona bakoitzak egiten dituen ikastaro eta barnetegi adina beka eska ditzake, (urria-otsaila, otsaila-ekaina, urria-ekaina, uda, uztaila edo iraila eta barnetegiak), baina beka bakarra jasoko du ikastaro bakoitzeko.

Ezingo dute diru-laguntzarik jaso Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluak aipatzen dituen arau-hausteeekin zigortutakoek.

Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak: euskara ikasketak, udako ikastaroak, barnetegiak eta UEUren ikastaroak barne, laguntzeko beka ematea. Gastu hauek bekatik kanpo geldituko dira: joanetorriko gastuak eta barnetegiko mantenu eta ostatu gastuak.

Beken zuzkidura eta sortzapena: bekaren zenbatekoa matrikularen kostuaren ehuneko 100ekoa izango da, beti ere eta aurrekontuetan beketarako onartutako partida izango delarik muga. Eskaera-kopurua dela eta, banatu beharreko zenbatekoak partidan onartutako kopurua gaingidutako balu, eskaeren artean hainbanaketa egingo litzateke. Horretarako, honako proportzioak bete behar dira, irizpide nagusi modura: ehuneko 80 langabetu eta ikasleentzat, eta ehuneko 50 gainerakoentzat.

Eskaerak eta ekarri beharreko agiriak: eskaera egiterakoan, dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

A) Udalak emandako eskaera-orri ofiziala, eta, horrekin batera, xede horretarako beste edozein administrazio, organismo edo entitate publikoren diru-laguntzarik edo laguntzarik jaso duela edo ez duela adierazten duen zinpeko aitormena. Beste dirulaguntzarik jaso badu, jasotako kopurua eta zer administraziok eman dion zehaztu behar da; halaber, datu horiek egiaztatzen dituen egiaztagiria ere aurkeztu behar da.

B) Euskaltegiaren edo ikastaroa egin den zentroaren ziurtagiria, honako datu hauek guztiak jasotzekoa: zer ikastaro hasi eta amaitu duen, ikastaroaren ordu kopuru osoa eta ikasleak aprobetxatu dituen ordu kopurua (gutxienez, ehuneko 80ko asistentzia), ikastaroaren hasiera eta amaiera-datak eta ikastaroaren kostu osoa. Barnetegiaren kasuan, irakaskuntza-gastuak eta mantenu- eta ostatu-gastuak bereizi behar dira.

C) Matrikula ordaindu dela egiaztatzen duen bankuaren agiria.

D) Langabezian daudenek: Ikastaroa egin duten epealdiko lan-bizitzaren agiria. Ikasleek: ikasturte horretako matrikularen fotokopia, dagokion Ikastetxeak emandakoa (ikasketa ofizialen kasuan bakarrik).

Aurkezpena eta epeak: beka eskaerak, barnetegienak barne, 2026ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Udaleko Sarrera Erregistroan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen, azaroaren 26koaren, 38. artikulua finkatutako beste edozein bideren bitartez.

Diru-laguntzarako eskaerak aurkezteak, oinarri hauetan jasotako guztia berariaz eta formalki onartzen dela esan nahi du.

Eskaerak aztertzea eta erabakitzea: udalbatzako alkate-udalburuak emango ditu diru-laguntzak, aldez aurretik euskara eremuaren eskumena duen administrazio-unitatearen txosten teknikoa izanik (euskara teknikaria).

Izarra, 2026ko martxoaren 30a

*Alkatea*

*XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA*